

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Okondoko udalerrian dauden etxebizitzetan tximiniak garbitzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onestea

Alkatetzaren 2024ko abenduaren 4ko ebazpenaren bidez, Okondoko etxebizitzetan tximiniak garbitzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 9. artikuluan jasotakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

1. artikulua. Oinarria

1. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan udal guztiei esleitzen zaizkien eskumenetako bat da suteen prebentzioa.

2. Okondoko Udalak garrantzi handienekotzat jotzen du, prebentzioaren barruan, etxebizitzetako tximinien garbiketa. Hortaz, aldizkako garbiketa sustatzeko, egokitzen da dirulaguntzen lerro bat sortzea, horrek dakartzan gastuak arintzeko.

3. Oinarri hauen helburua da laguntzen eskabidea egiteko baldintzak ezartzea eta, hala badagokio, aipatutako tximinia garbiketaren kostua ordaintzeko dirulaguntza ematea.

2. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da udalerriko etxebizitzetako tximinien aldizkako garbiketa sustatzea, baldin eta horrelakorik eduki eta erabilera legezaturik badaukate. Xedea da, halaber, Okondoko Udalak, bere eskumenen esparruan, haren kostuaren zati bateko dirulaguntza emateko prozedura arautzea.

– Titular bakoitzeko etxebizitza bakarra lagunduko da diruz urtean.

– Bi urtean behin bakarrik lagunduko da diruz etxebizitza bateko tximiniaren garbiketa.

3. artikulua. Araubide juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak oinarri hauetan ezarritakoaren eta honako araudi honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira:

– 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

– 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearena.

– 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

– 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21eko, dirulaguntzen lege orokorraren araudia onartzen duena.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

– Okondoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.

2. Dirulaguntzak norgehiagokaz bestelako araubidean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontuko kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabiltzea.

3. Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak ezagutzen eta onartzen dituela oinarri hauek, udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, bai eta honelako dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien arau guztiak ere.

4. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Okondoko Udalak ekitaldi bakoitzean aurkeztutako eskaerei erantzuteko nahikoa den zenbateko bat xedatuko du, dagokion aurrekontu partidaren kontura.

5. artikulua. Onuradunak

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzaren onuradun izan daitezke pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Okondoko udalerrian dauden eta etxebizitza erabilera duten eraikinen jabe edo gozamedun badira, tximinia garbiketa egin eta dagokion eskaera egiten badute.

6. artikulua. Eskatzaileen betekizunak

1. Pertsona fisikak nahiz juridikoak Okondoko udalerrian dagoen eta erabilera legeztaturik daukan eraikin baten jabeak edo gozamedunak izan beharko dira, eta deialdian adierazten den epearen barruan tximiniaren garbiketa eginda eduki beharko dute.

2. Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea eta harekin inongo zorrik ez izatea dagokion deialdia behin betiko ebatzi arte.

3. Kontzeptu eta eraikin berberarengatik dirulaguntzarik hartu ez izana aurreko azken urtean.

7. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Baimendutako enpresa batek etxebizitzako tximiniaren garbiketa egitetik sortutakoak.

8. artikulua. Eskaerak

1. Eskaerak eredu ofizialean aurkeztuko dira.

2. Aurkezteko epea: deialdian agertzen den data.

3. Aurkezteko modua: Aurrez aurre udal bulegoetan, 08:00etatik 14:00etara, edo udalaren webguneko egoitza elektronikoaren bidez.

4. Dirulaguntza emateko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, adosten den ereduaren arabera.

Tximiniak garbitzeko enpresa espezialistak egindako fakturaren kopia eta ordainketaren egiaztageria.

9. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

1. Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari hura osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaio ezen, epe hori igarota dokumentazioa osatuta aurkeztu ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

2. Alkatearen ebazpen bidez emango dira dirulaguntzak, deialdi bakoitzean ezartzen diren epeak amaitu ondoren.

10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

- Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontu osora iritsi ahal izango da, gehienez ere 100,00 euroko mugarekin.
- Dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, guztiek dirulaguntza jaso ahal izateko.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira eskatzaileak helburu bererako jasotzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, emandako beste dirulaguntza batzuekin baturik, ezingo da inola ere handiagoa izan garbiketaren kostua baino.

12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, ebazpena emandakoan eta aurrekontu ekitaldia amaitu baino lehen.

13. artikulua. Dirulaguntzen kontrola eta justifikazioa

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua 7. zenbakian xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza hau emateko, ez da behar beste frogagiririk fakturaren aurkezpena baino, eskaerarekin batera, eta hura lortzeko baldintzak betetzea.
- Alabaina, pertsona onuradunak udalari jakinarazi behar dizkio kontzeptu honetarako eskuratzen dituen beste laguntza edo dirulaguntza batzuk, haiek jasotzen dituen unean.
- Laguntzen jasotzaileei aplikatu beharreko itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzen dituen araubidea Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Okondoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen dutena izango da.

14. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen araubidea

Arau hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa eta dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoa beteko da.

15. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden alderdietan, dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzeko Okondoko Udalak onetsitako ordenantzan xedatutakoa beteko da, bai eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoa ere.

Okondo, 2024ko abenduaren 5a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO